

# Funtsezko jarduerak

Gure negozioan, beste edozein enpresatan bezala, funtsezko jarduerak egin behar dira, enpresak ondo jardun dezan.

Hauek, baliabideak bezalaxe, ezinbestekoak dira batez ere bezeroengana iristeko, eta horrela diru-sarrerak lortzeko:

## ➤ **Salgaiak lortzea:**

Hornikuntzarako, ezinbestekoa izango da produktuak hornitzaileei erostea, gero guk saldu ahal izateko. Hornitzaileak inguruko baserriak izango dira, eta horretarako, haiekin harremanak estutu beharko ditugu. Bestalde, hornitzaileei honeako produktuak erosiko dizkiegu gero guk erosi ahal izateko:

- Esnekiak (yogurrak, esnea, izozkiak eta gazta)
- Eztia
- Mermelada
- Barazkiak (urtaroen arabera)
- Fruta (urtaroen arabera)
- Ogia
- Arrautzak
- Lekaleak
- Bertako haragia eta arraina
- Produktu begetariano, begano eta ekologikoak.
- Dieta berezia duten pertsonentzako produktuak (zeliakoak, arrautzarekiko intoleranteak,...)



➤ **Bezeroen zerbitzura:**

Bezeroen arazoak konpondu ahal izateko, batez ere herri txikietako arazoak, denda antzeko bat garraiatzen duen furgoneta bat eramango dugu herriz herri aste osoan zehar (igandeak barne).


Honek hainbat abantaila ekarriko dizkie:

- ❑ Herri txikietako biztanle asko jende heldua dira, eta hauek askotan ez autorik edo autobusik behar duten orduan, beraz haientzako oso baliagarria izan daiteke.
- ❑ Autoa dutenek, gasolina aurreztuko dute.
- ❑ Herri haundiago batera jaitea baino askoz erosoagoa izango da.
- ❑ Denbora alferrik gastatzea saihestuko dute, erosketa askoz azkarragoa izango baita.
- ❑ Suermerkatu batean ez bezala, gure produktuak ez dira ultrarozesatuak izango, beraz, osautsuagoak izango dira.
- ❑ Prezioak ez dira garestiegiak izango, beraz hobeto eta prezio berdinean jateko aukera izango dute.

➤ **Web orria**

Plataformako eta Sareko jarduerari dagokienez, web orri bat egingo dugu, eta horretaz gain, sare sozialetan oso aktiboki parte hartuko dugu, bezero guztiei iristeko. Esan dugunez, bezero guztiei iristeko asmoa dugu, eta Webaren bidez gazteenei iristeko aukerak zabalduko ditugu.

Webaren bidez, bezeroek erraztasunak lortuko dituzte, adibidez, eskaerak egiteko aukera izango dute eta horretaz gain, herri bakoitzean noiz eta zer orduan egongo garen abisuak pasako ditugu, hau da, errazago lokalizatuko gaituzte. Gainera, produktu berrien, merkealdien edo jaiegunen berri izango dute.



Instagram: @mohaomovil

Facebook: @mohaomovil

Twitter: @mohaomovil

Web orria: [www.mohaomovil.eus](http://www.mohaomovil.eus)